

MUSIKA HAMABOSTALDIKO AZKEN KONTZERTUAK CHILLIDA-LEKUN

Iñaki Fresan baritono nafarraren ahotsa gaur eta Pablo Sorozabal Haize Boskotea bihar Hernanin

■ Orain arteko ekitaldietan jende asko ibili da, eta Zabalagako aulkiak bete egin dira ■ Iñaki Fresan abeslaria Juan Antonio Alvarez Parejok pianoarekin lagunduta arituko da gaur ■ Pablo Sorozabal Boskoteak inguruko konpositoreen lanak interpretatuko ditu.

MUSIKA Hamabostaldiak etxeko artistak aukeratu ditu musika kontemporaneo zikloa bukatzeko. Orain arteko 4 kontzertuetan Frantzia, Ingalaterra eta Txekiako musikak izan dira Hernanin egin den zikloan. Gaur Iñaki Fresan baritono nafarrak emango du kantaldia Juan Antonio Alvarez Parejok pianoarekin lagunduta, eta bihar Pablo Sorozabal Bostekoak inguru honetako konpositoreen obrak interpretatuko ditu.

'Jardin sekretuko kantuak'

Iñaki Fresanek 8 konpositoreen obrak sartu ditu gaurko errepertorioan, eta tartean estreinaldi bat ere izango da Chillida-Leku museoan: Fresanek *Jardin sekretuko kantuak* abestuko ditu. Testu ababiar-andaluzak dira eta Antón García Abrilek moldatutako musika dute: *Al-Andaluseko jardina*, *Galdutako Alhambrari ereserkia*, *zugatik negarrez segituko dut* edo *Bi maitasun* dira Jardin sekretuko kantuetako batzuk.

Estreinaldi horretaz gain, Iñaki Fresanek honako autore hauen kantuak abestuko ditu gaur: Reynaldo Hahn, Gabriel Fauré, Albert Roussel, Maurice Ravel, Federico Mompou, Eduardo Toldrá eta Pascual Aldaveren kantuak hain zuzen ere.

Pablo Sorozabal Boskoteak kantu berriak joko ditu

Pablo Sorozabal Haize Boskotea etorriko da bihar eta erabat kantu berriak joko ditu Hernanin,



Sphota taldearen emanaldian Annabel Guérédrat dantzariaren emanaldi bereziak sortu zuen ikusmin haundiena.

nin, Pablo Sorozabal konpositore haundiaren amaren herrian, hain zuzen ere. *Gure inguruko konpositoreak* da kontzertuaren izenburua eta 6 musika sortzaileen lanak joko dituzte Zabalagako museoan, eta horrekin bukatuko da 64garren Hamabostaldiko Musika Garai-kide zikloa.

Pablo Sorozabal Haize Boskotea osatzen dutenak honako hauek dira: Jesus Solabarrieta (txirula), Mikel Olazabal (oboea), Emilio Chirivella (klarineteta), Jose I. Etxeberria (fa-



Iñaki Fresan baritonoa.

gota) eta Jon Lizaso (tronpa). Bostetik lau Donostiako Musika eta Dantza Eskolan aritzen dira musika erakusten.

Iñaki Fresan baritonoak Maurice Ravel, Albert Roussel, Pascual Aldave, Federico Mompou eta beste lau konpositoreen kantuak abestuko ditu gaur. Kontzertu bukaerarako estreinaldi berezi bat ekarri du Hernanira: Anton Garcia Abrilen *Canciones del Jardin secreto*, testu arabiar-andaluzez osatuako kantuak.

Bihar interpretatuko dituzten konposizioen artean, Javier Jacintok Eduardo Chillidaren omenez egindakoa izango da,

eta Juan Carlos Perez Itoiz musika talde ezaguneko abeslariaren kantuak ere entzuteko aukera izango da. □

Asesoria
HATOR
Aholkularitza

HATOR
Aseguruak

Fiskala
Laborala
Kontablea
Administratiboa

Kardaberaz 60
Tel.: 943 55 43 12
20120 Hernani


ITXASPE

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Móbil: 653 74 10 97
20120 Hernani

AMEGAR

Etxe tresnak
Altzariak



Elektrogailuak
TB- Bideoak-
HI-FI-Opariak

Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25
Faxa: 943 55 16 30


BIKAIN
OKINDEGI TX GOZOTEGIA


Eguneroko ogia
beti bikain



Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089
Elkano 12 - Tel.: 943 553142
Orkolaga 19 - Tel.: 943 331487
20120 Hernani

ERREMONTA - CASINO KURSAAL TORNEOA



Ezkurak (eskubian) eta Etxabek partidu motza jokatu zuten, baina, izan ziren tanto ederrak ere.

Ezkurak ez zuen barkatu

Doneztebeko txapeldunak 30 - 22 irabazi zion Jokin Etxaberi.

EZKURRAK atzo ere erakutsi zuen bere nagusitasuna eta buruz buruko ligilan sartu da, Etxaberi 30-22 irabazita. Etxabe bera hasi zen irabazten. Ezkurra 3garren tantorako aurretik bazen ere, Hernanin bizi den zageroak ondo eutsi zion nafarrari 10garren tanto arte. Hor Koteto aldea hartzen hasi zen.

Etxabe tarteka arrimaten zitzaien eta oso tanto politak ere egin zituen, baina, Ezkurak ez zuen barkatu eta erakutsi zuen 8garren txapelaren bila dijoala.

Ligilako aurreneko Eizagirik eta Zeberio IIak jokatu dute, larunbatean. Irabazten duenak Ezkurra izango du zai asteartean, abuztuaren 26an.

Larrea-Urrutia, aurrera
Larrea eta Urrutia Promesetako txapelketa semifinaletara sartu dira, partidurik galdu gabe. Nafarrek 35-26 irabazi zieten Matxin V-Badiolari. Semifinaletan, Larrea-Urrutiak Iturralde-Jon izango dituzte kontrario, eta Matxin III-Arrizabalagak Juaristi-Gaztelu. □

FUTBOLA



Hernaniko Gorenkoen taldeak joku ona azaldu du azken partiduan.

Hernanik 1-0 irabazi zion Lagun Onak taldeari

Bestalde, aste honetan Juantxo Labaien Torneoko lehenengo partiduak jokatu dira Zubipen eta CDHko jubenilek Realaren kontra jokatu dute finala, asteartean.

GORENGO mailako taldeak aurre-denboraldiko bigarren partidua jokatu zuen asteazkenean Zubipen, Azpeitiko Lagun Onak taldearen kontra. Hernaniarrek partidu txukuna egin zuten eta 1-0 hartu zuten mendean Hirugarren mailako taldea, Iñigo Olasagastik gola sartuta. Hernaniri denbora

gutxi gelditzen zaio azken ikutuak egiteko, denboraldia irailaren 6an hasiko baitu. Aurreneko partidua etxean jokatu du Arrasateren kontra.


Labaien Torneoa Jubenilek
Aste honetan 31garren Labaien Torneoko partiduak jokatu dira, eta Hernaniko jube-

nilen taldea finalerako klasi-fikatu da. Hernanik 3-1 irabazi zion Lehengokoak taldeari eta Realak, berriz, 4-1 hartu zuen mendean Añorga. Jubeniletako torneoa honetan azken partiduak asteartean jokatu dira Zubipen: 3-4garren postua, 17:00etan, eta finala, 19:00etan. □

Sebastian Salaberria idazle eta bertsolaria joan zaigu

Salaberriak liburu oso famatua idatzi zuen, 36ko Gerrako testigantzekin: 'Neronek Tirako Nizkin'.

SEBASTIAN Salaberria idazle eta bertsolaria larunbatean hil zen, 87 urte zituela. eta astelehenean lurperatu zuten Hernaniko hilerrian. Salaberria oiartzuarra zen, baina, azken urteak Hernanin egin zituen, Zaharren Egoitzan. Salaberriak idatzitako liburu ezagunena *Neronek Tirako Nizkin* liburua da. 36ko Gerran berak bizitutako kontuak kontatzen ditu eta asko famatu dute idazle eta editoreek. Bi arrazoi-gatik famatzen dute: batetik, kontatzen dituen gertaeren garrantziagatik; eta bestetik, idazteko edo kontatzeko zeukan estiloagatik.



Sebastian Salaberria.

Benetako gertaerak

Neronek Tirako Nizkin liburuan Salaberriak gerrako bere testigantza uzten du. Salaberria behartuta eraman zuten gerrara tropa frankistek. Salaberriak bazekien anaia nazionalistekin ari zela borrokan eta obsesio bihurtu zitzaion hori. Bataila bat bukatzean hildakoen gorputzei buelta ematen zien bere anaia izango ote zen beldurrez.

Kontatzeko teknika

Gertaera gordin horiek modu berezian kontatu zituen Salaberriak eta hori da idazle askok aitortu dioten dohaia. Inazio Mujika idazle eta editoreak zioen azken idazlea

izan zela Salaberria herri literaturaren kontatzeko modua mantentzen zuena. "Ahozkoa, hitz egiteko modutik oso gertuko". Mujikaren iritziz gaurko idazleek erabili ditzakete Salaberriaren estilotik zenbait baliabide: "elipsia, hirugarren pertsona batek esandakoa kontatzeko modua, eta abar.

Hiru liburu

Sebastian Salaberriak hiru liburu idatzi zituen eta hirurak Auspoa sailak argitaratu zituen. Lehenengoa *Neronek Tirako Nizkin* (1964); bigarrena bertso liburua da *Nere Soroko Emaitzak* (1984an); eta hirugarrena *Sagardotegiak* (1997an argitaratua). □

NERONEK TIRAKO NIZKIN

Gauko euskal libururik emagarriena
1964-ngo. «Agura»-ren «Gaipe»-ren nobela-azia irabazi duena

Bihar hasiko dira Ergobiko jaiak

Txirrindulari Proba, Bernardo Arzallus I. Memoriala.

ERGOBIKO jaiak bihar hasi eta asteartea bitarte izango dira. Ekitaldi ugari daukate prestatuta lau egunetarako. Bihar urteroko Txirrindulari Proba izango da, aurten Bernardo Arzallus Memoriala deitu diotena. Bernardo Arzallus Ergobikoa zen eta festetan lan asko egindakoa, antolatzaile bezala. Horregatik, bere izena jarri diote Txirrindulari Probari eta hala izango da hemendik aurrera.

Horrez gain, bihar auzoko

hildakoen aldeko meza eta kontzertua ere izango dira. Hurrengo egunetan berriz, idi-demak eta herri kirolak mugituko dute jende gehiena. Astelehenean adibidez harri jasotzaile puntakoak izango dira Ergobiko plazan: Perurena eta Izeta aita-semeak eta Aimar Irigoien. Astelehenean urteroko antzerki herrikoia, asteartean bazkari herrikoia, eta gauero kontzertuak eta festa izango dira Ergobin, datozen lau egunetan. □

IRAGARKI MERKEAK

Gela bat alokatzen da, bulegoko lanak, klase partikularrak edota masajeak emateko. Zentroan. Interesatuak deitu: 943 55 29 46 - 943 55 46 97

Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko, 10:00etatik 13:30etara. ☎: 667 019274.

Hernanin ogi banatzailea behar da. ☎: 609 543900 (19:00etatik 20:00etara).

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 006666
►Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Gomez Justel
Kale Nagusia 14
☎ 943 554892
►Gauz: Urbistondo
Lasarte. San Francisco 1B
☎ 943 366567